

Noaia!!!



Ostiral honetan,
“Teatreruak” Aginagan



BasHerri taldeen
II. topaketak
Usurbil, otsailak 25-26

Oraindik ez dagoz, Artxandako proiektuak
Baserritarren arteko esperientzia partekatzeko
espazioak

Oraindik ez dagoz, Ucarnegi eta Ucarnegi
Gipuzkoako BasHerri taldeen
arteko gogoeta
Auzolanean, eta herriaren
gogoa

BasHerri taldeak
Baserritar eta hartzaileen
arteko harreman zuzenaren alde

USURBIL

INAU

TE

RIAK

2011

martxoak 5

ITSASOA

Mozorrotu eta atera kalera!



Albistea iruditan!!

Frantziar estatuan konfinatu dute Segurola

Espainiako Auzitegi Nazionalak Patxi Seguiolaren aurka eginiko bi estradizio eskaerak atzera bota ditu Versaillesko epaitegiak. Bigarrena joan den astean. Ondorioz, azaroa amaieran aske behar zuen aginagarra espetxetik irten zen joan den otsailaren 15ean. Baina ez aske, Fiskalak helegitea aurkeztu baitu. Egoera argitu artean, Segurola Usurbildik 850 kilometrotara konfinatu dute, Autun herrixkan (Borgoia). "Hotel batean dago momentuz. Egunero bi alditan aurkeztu behar du komisaldegian eta bertatik ateratzeko debekua du", usurbileginez.com web orrialdeak berri eman duenez.



IRUDIAN, SEGIROLARI ELKARTASUNA ADIERAZTEKO IAZKO MOBILIZAZIOA.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Telefono zenbakia: 943 36 03 21

E-posta: elkartea@noaua.com

www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkari koordinatorak: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkarte eta Udarregi ikastola.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

KRONISTAK KALEJIRAN **6-7. OR.**

AURREKONTUAK ONARTZE BIDEAN **8. OR.**

BASHERRI TALDEEN TOPAKETAK **12. OR.**

FUTBOL TXAPELKETA HASTEAREN **15. OR.**




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

USURBIL AUTOAK
TAILERRA · KARROZERIA · KOTXEEN SALMENTA

Ford **SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!**

zerbitzu ofiziala
Zumartegi industrialdea **943 36 10 79**

Otar-Goxo
Elikagutia

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

TAXI

677 37 34 66
943 36 69 69
Jose Etxabe (24h) USURBIL



UGAITZ AGIRRE

“Give peace a change”

Hemen nabil Klandevsky izeneko istorio bat idazten. Klandevsky lurralde urrun bezain hurbil bat da. Bertako biztanleriak gerra batean sartuta daude eta azken batailen aurrean aurkitzen dira. Bi bandotan banaturik daude: batetik Capitalia dago eta bestetik Oniros, Varsoviako erresistentzia bezala deitua.

Eta zergatik egiten dut hau? Galdetuko duzu seguruenik. Zergatik ari da horrelako zerbait kontatzen tipo hau? Beno, azken hilabeteetan Afrikak hitz egiten ikasi duela dirudi berriz ere. Altxamenduak bata bestearen atzetik datoz. Tunisia, Egipto, Libia... Akaso hurrengo Maroko izango da eta batzuek Espainiari berari Afrika deitzen diotenez, agian Espainia bera ere altxako da. Baina hori beste kontu bat da. Jendea hil da han. Berdin du zein bandotakoa izan. Heriotza beti da bera. Horregatik nahi dut pasarte hau idatzi, nolabait munduaren salbatzaile titulu duten horiei kritika apur bat egiteko. Diplomazia eta bake oihuak dituzte mikrofonoen aurrean eta itzalpean arma trafikoa dihardute inongo lotsa barik. Bakearen usoak fusil bat darama mokoan antza.

Eta John Lennon-en hitzak jarri ditut izenburu gisa bakea baita mundua aldatzeko era eta ez gerra. Varsovian denak prest daude. Karta guztiak mahai gainean daude. Ordago bat. Haizea lautada zabaleko belarrean nabarmentzen da. Zuhaitz bakanak handik hona dabilta mugimenduan. Zerua ilun dago, hodei beltzek izua daroate beren baitan. Xirimiria hasi da. Ezpatak zorrotz, bihotzak bero. Zelai beteko guda ero bat begien aurrean. Erdi Aroko gerla da hau. Posizioan dago erresistentzia. Capitol City-ko mendiak ikusten dira han urrunean. Eta hurbilago aurkariak. Burokrazia zaldien gainean eta

soldaduak atzetik. Capitaliako bandera han dago, Sulaskyko bandera han dago, Motaniako bandera han dago, Etraniako bandera han dago, Nabirubako bandera han dago. Jarri dira zelaiaren beste aldean eta Capitaliako gerra ministroa urreratu da zelai erdira. Beste aldetik Merlin bere zaldia gainean. Ez dago bakerik, ez dago akordioerik. Hitz bakarra bien ahoetan: GERRA. Bakoitza bere postuetara itzuli da. Geziak etsaia-ri zuzendurik jaurti dituzte Akilesen aginduetara bere gizonak. Hasi da hasi behar zuena. Zaldien aurretik soldaduak, gizon eta emakume. Hemen ez du indarrak balio, etsaiarekiko gorrotoak baizik. Lehen burdin kolpeak aditu dira. Lehen heriotz garrasiak aditu dira. Lehen odol zipiztinak. Lehen eromen oihuak. Ezpata bularrean sartu diote vikingo bati, gezi batek lepoa gurutzatu dio haur aurpegia duen Motaniako soldadu gazte bati. Belar berdea itsaso gorri bilakatzen dabil segundotik segundora. Errezo eta otoiak murmurio bat lez aditzen dira auskalo nongo jainkoari, baina ez da inon ageri beren salbatzailea. Buru bat dago lurrean gorpurik gabe begi zabalik. 30 bat urte izango zituen emakume beltzaran eder bat. Berdin du zein bandotakoa den. Gerra baten jira-biran heriotzak bi atek jotzen ditu gupida barik. Esku bat odolez zikindurik ezpata bat eusten lurrean botata. Buruz behera dagoen gorpu bat beste baten gainean lantza batek elkartzen dituelarik bien sabelak. Izkiriatu nahi ditudan hitzek beren samurtasuna galtzen dute herio artean. Hau da emaitza. Odol beroa hozten denean gainontzekoena gehiago berotzen da infinituraino. Eromeneraino. Varsoviako erresistentzia aurrera doa. Pausoz-pauso. Helmuga geroz eta hurbilago sentitzeraino. Han dago Capitol City, itsaso hil honen beste aldean.

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-mika

Errauskailua bankuen menpe

EHAJ-PNV, PSE-PSOE, PP eta Hamaikabat alderdi politikoek kosta ala kosta errauskailua eraiki nahi dute eta proiektua ondo “lotuta” utzi, horretarako haren kontrola banku hartzekodunen esku uzten badute ere.

Legealdia bukatu aurretik errauskailuaren eraikuntzaren hari mutur guztiak ondo lotu nahi dituzte aipatutako alderdiek, horrek ekarriko duen ondorioa, hiri-hondakinen kudeaketaren kontrola kredituak eman dituzten bankuen esku uztea baldin bada ere.

Gaurtik aurrera bankuek zuzenduko dute hondakinen kudeaketa, esaterako salneurrien eredu aldaketak edota eskuduntzen banaketa euren esku egongo dira eta.

Onartezinak dira errauskailuaren finantzaketarako hartu diren erabaki hauek, eta inola ere ezin dut akordioekin bat egin. Batetik, nola ulertu daiteke Europako Inbertsio Bankuak Europako ingurumen arauak argi eta garbi hausten dituen egitasmoa finantzatzea?

Banku honek ez luke inola ere Europako araudia errespetatzen ez duen proiektu honentzat dirurik jarri behar. Bestalde, lotsagarria da La Caixa eta Banestok negozioa egitea herritarren osasun eta ingurumenaren lepotik: osasuna edo ingurumenaren aurretik jartzen dute bankuek negozioa.

Ez nau harritzen baina sutan jartzen nau Foru Aldundiaren eta erakunde honetan ari diren PNV, H1, PSOE eta PPko ordezkariaren jarrerak. Erabaki eta akordio oso

gaiztoa hartu dute eta ondorio larriak pairatuko ditugu. Erabaki lotsagarri horiek geroa baldintzatu egingo dute ekonomikoki eta politikoki, bankuei emanen diete eta gerora egin daitekeen edozein aldaketa oztopatze-ko, gainbegiratzeko eta kontrolatzeko ahalmen osoa.

Eta zein da honen helburua? Horrela, errausketan oinarritutako hondakinen tratamendu eredu babestu eta betikotu nahi dute, hurrengo foru eta udal hauteskundeetan seguru aski etorri daitekeen aldaketa eta erabakiaren berrikuspena baino lehen.

Ricardo Ortega
GHK-ko Kontseiluko kidea

Herritarren %46,9ak jabetzan eskuratu nahi du etxebizitza, eta herritarren %45,8ak alokairuan

Joan den irailaren 27tik urriaren 11ra 458 etxebizitzetan, 1.254 familia kiderengana hedatu den inkesta burutu zuen Aztikerrek Usurbilgo Udalarentzat. Etxebizitza premia eta eskaria neurtu ziren. Hona hemen, inkestaren emaitza nagusiak hiru atal nagusitan banatuta.

Lehen etxebizitza eskuratzeko premia

-Zenbatek: 149 familietako (%6,8) norbait lehen etxebizitza eskuratzeko premian dago. Guztira, 18-40 urte arteko 223 usurbildar (%10,8).

-Premiaren larritasuna: %48k behar handia, %44k nahiko beharra.

-Premian daramaten denbora: %28a urte bat baino gutxiago, %24a 1-2 urte artean; %28a 2-4 urte artean eta %20a lau urte baino gehiago.

-Arrazoiak: emantzipazioa lehen arrazoi %64arentzat, bigarren arrazoi %40arentzat; bikotekidearekin bizitzera joatea %60arentzat.

-Norekin joan bizitzera?: %54,2 bikotekidearekin, %37,5 bakarrik; %8,3 lagun taldean.

-Zenbat ordaintzeko prest?: bataz beste, 163.421,05 euro. Asko jota, 240.000 euro baina gehienak, %36,8a, 150.000 euro baino gutxiago ordaintzeko prest.

-Zer erudutan bizitzeko prest?: %100a jabetzan, %83,3 alokairuan, %50 ekipamendu dotazionalan.

-Zenbat gelek: hiruarekin %44, 2 gelegekin %40.

-Zenbat metro behar dituzten: gehienek 60-90 metro karratu artean, (61-75 metro karratu artean %40k; 76-90 metro karratu artean %44ak).

-Kokapena: Kaxkoan %100a, Kalezarren %95,8a, gainerako auzoetan %40tik gora. %36a herritik kanpo.

Etxebizitza aldatzeko premia

-Zenbatek: 57 familiak (%2,6), 161 herritarrek.

-Larritasuna: %20,9rentzat behar handia; %77,1entzat nahiko beharra.

-Premian zenbat denboran: lau urte baino gehiago, %60,6. 2-4 urte artean,

%16,2.

-Zergatiak: baldintza txarrak (%56,7), etxea txiki (%46,8), etxebizitza jabetzan nahi (%42,3), kokapen desegokia (%40,8).

-Zenbat ordaintzeko prest?: 164.245,90 euro bataz beste. %61,3 180.000 eurotik behera ordaintzeko gaitasuna, %38,7k 180.000-270.000 euro artean.

-Zer erudutan bizitzeko prest?: jabetzan %100, alokairuan %71,5, ekipamendu dotazionalan %31,9.

-Zenbat gelek: %48,3k bi gelakoa, %41,9k hiru gelakoa, %9,8k lau gelakoa.

-Zenbat metro karratukoa: %98,1ek 100 metro karratutik beherakoa; %69,3k 75 metro karratutik beherakoa.

-Kokapena: Kalezar %92,3, Kaxkoa %84,9, herritik kanpo %31,3.

INKESTAK DIOENA...

Harritzekoa bada ere, inkestak dio "Administrazioak harturiko neurriekin %60,9 oso ados dago eta %38 ados".

Herritarren iritzi eta jarduerak etxebizitzaren auziaren inguruan

- %60,1entzat arazo larrietakoa da, %22,4rentzat ez.

-Administrazioak harturiko neurriekin: %60,9 oso ados, %38 ados.

-Administrazioak gauza ditzakeen etxebizitza politikekin: bost urterako alokairuak (%49,4 oso ados), lokalak etxebizitza bihurtzea (%47,8 ados), etxe hutsak merkaturatzea (%80tik gora ados).

-Etxebizitzak jabetzan edo errentan?: %46,9 jabetzan, %45,8 alokairuan.

-Salneurriak, babes ofizialeko etxebizitzaren arabera izatearekin: %49,4 erabat ados.

-Etxebizitza hutsak merkaturatzeko zergak jartzearekin: %35,3 erabat ados, %33,3 nahiko ados.

Inkestaren emaitzak, www.usurbil.net



GUZTIRA 223 USURBILDAR, LEHEN ETXEBIZITZA ESKURATZEKO PREMIA.

"Etxebizitza sozialak sustatu behar dira"

Etxebizitza premien inguruan herritarren artean udazkenean Udalak egin zuen inkestaren balioa azpimarratu nahi du alkateak. Behar bat zehazten duela dio eta orain, Sekaña eta Agerreazpi eremuetako etxebizitzekin behar horri neurri nabarmen batean erantzuten zaiola azpimarratzen du Xabier Mikel Errekondok. Inkestak utzitako datuen artean, zehazten duenez, "25-34 urte arteko gazteak dira gehienbat lehen etxebizitza beharra dutenak, 223 herritar inguru". Gehienek herrian bizitzen jarraitzeko hautua egitea ere gustura egoteko modukoa dela dio Errekondok: "Herritarrak oro har, herrian bilatu nahi du bere etxebizitza irtenbidea. Herritik kanpo etxebizitza bilatzera joango liratekeenak gutxi dira". Aukera emanda, herritarrak etxea jabetzan hartzearen aldekoak direla dio, baina inkestak erakusten duenez, "%83ak ere alokairu sozialean hartuko luke". Alkatearen esanetan, "etxebizitza sozialak sustatu behar dira", baina dioenez udalek zailtasun nagusi bat dute; gaintitu beharreko finantziario arazoa.

AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

Mitxarkoneko Patxi aske!



Ez dira urte gutxi Patxik herritik alde egin zuela, 16 bat urte izango dira. Horietatik, hainbat paseak ditu Frantziako kartzeletan. Hala ere, azkenean, bere zigorra bete ondoren askatu dute. Ez diote, ordea, Euskal Herriraino hurbiltzen utzi eta Bourgogne eskualdeko Autun herrian omen daukate konfinatuta. Suitzako mugatik ehun kilometro ingurura dago leku hori.

Aurrean edukiz gero, Patxiri gogoraziko genioke garai batean Maspildegiko elkartean ordu gehiago pasatzen zituela mendian baino. Askotan sukalde lanetan, hori egia. Dagoen lekuan egonik, eta Alpe mendiak hain hurbil edukirik nori daki gure Patxi mendizale amorratua bihurtuko ez ote zaigun, azken denboretan lanak eman dizkion bizkarrak uzten badio behintzat.

Bromak aparte utzita, Euskal Herrian gauzak konponetze bidean egotea nahiko genuke, nahiz eta, zailtasun faltarik ez dugun izango. Bidea erabakia dagoela ematen du, eta Patxi bezala gugandik urruti direnak gerturatze eta etxeratze guna hurbil izatea nahi genuke.



Lerro hauetatik besarkada bat Patxi, Aginagako jendearen partetik, eta animo: Andatza mendiak lehengo lekuan segitzen dik eta Mendizorrotzek ere bai, hi etortzean izango diagu aukera neurtzeko indarrak. Orduan, ikusiko diagu mendizale bezala edo sukaldari moduan eltze tartean, zertan haizen abilena.

(Oharra: "Mitxarkone" idatzi dut, gaur egun Aginagan horrela deitzen diogulako Patxi Seguirolaren jaiotetxeari, berez "Mitxelkoena" omen denari).

KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

Inauteriak datoz



Inauteriak ate joka ditugu jada, astebe-te baino ez da falta mozorroen festa handirako. Ziur nago haur eta gazte ugari jada zain egongo dela inauterietako data berezi horiek noiz iritsiko, aukera izango baitute hainbeste miresten duten pertsonaia horren "azala" jarri eta ordu gutxi batzuetan bada ere eurak direla sentitzeko, bizitzeko eta gozatzeko.

Helduago garenean ordea hein haundi batean kosta egiten zaigu mozorrorik jaztea edota... egunerokotasunean soinean daramagun hori kentzea!

Kosta egiten da hain zuzen ere behin pertsonaia bat eratu dugunean beronen "jantzia" kendu, kaxa zahar batean ganbaran gorde eta aurrera egitea. Eta hortxe ibiltzen gara egunez-egun, eta urtez-urte "mozorro" berarekin.

Garai desberdinak identifikatzen jakin beharko genuke. Aurrera egin nahi badugu ezin dugu atzera begira ibili oztoporik topatu nahi ez badugu, behinik behin. Egin dezagun aurrera, egin dezagun elkarrekin, egin dezagun denok eta goza dezagun garai berri hauetaz.

ATXEGALDE

UNAI AIZPURUA

25. Artikulua

30 urte betetzera eta oraindik betiko etxean. Betiko gela. Betiko ohea. Betiko posterrak. Gurasoen etxean alegia, apopilo jarraitzen dugu. Nostalgia ote da? Azken 30 urte hauetako oroitzapenak galduko ditugulakoan? Zoritzarrez ez dut uste sentimenduen iraultza denik. Gaur egun ikasketak amaitzerako mende laurdena inguru, eta lan batean "fijo" egin arte, denbora luzea pasatzen da, batzuetan gehiegi. Eta zer esan krisi garai hauetan, ETT bidezko 3 hilabeteko kontratu zistrin bat baldin bada askoren patua? Etxe bat erostea ezinezkoa da. Ezta lagun talde osoaren diru sarrerak batuz gero ere. Eta zertarako? Alokairuan ere bizi gintezke, ezta? Ba zoritzarrez alokairu baten prezioa ere askotan ez dator gure poltsikuarekin bat. Etxebizitza konpartitzea da gazte askoren irtenbidea, garai batean gurasoekin izandako konbentzi arazo horiek koadrilakoen arteko aldatzea alegia. Nostalgia agian. Beraz, gure bizitza hipotekatuta (agur bizio txiki zein handiei), eta etxetik kanpora bizitzeko prest al gaude? Dilema polita! Hori dela eta, etxeko "hotela" uztea erabaki garrantzitsua da, "todo incluido" ko pultsera mozteko garaia dator. Kabia utzi eta hegan egiteko garaia da. Zorte on babes ofizialeko etxebizitzetan izena emateko asmotan zabilzatenoi!!!



SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

Pazientzia



Badoa, badoa gure auzoko obra, badoa frontoia itxura hartzen, badoa plaza itxura hartzen, ze orain arte ez zirudien ez frontoia eta ez parkea zenik. Horrela izaten dira obrak, hasieran dena hankaz gora jarri arren, denborarekin gauzak aldatzen joaten dira. Badirudi arazoak topatu zituztela frontoia egiteko garaian, eta orain berriz egunetik egunera ikusten da lana aurrerantz doala, martxa onean. Parke ingurua ere zeharo aldatua dugu, eta hemen ere berdin, pixkanaka argiak ikusten hasi gara, pazientzia pixka bat gehiago eta konturatzerako... Ba hori, ikusiko dugu. Baina honek ere zer pentsatua ematen dit. Geure auzoan, gauza hauek guztiak behar den bezala mantentzeko gai izango al gara? Ze gure auzoan askotan gertatu da, parke berria jarri, bere banku berri eta guzti eta bi egunetan txikituta aurkitzea, edo gogoratu urtero gertatzen ari zaiguna Olentzerorekin, batzuek ilusio askorekin lana egin, eta lan ona gainera, eta beste batzuek ilusio askorekin ere dena txikitu behar, tristea da baina gure auzoan gertatzen da. Denborarekin ikusiko dugu, ea gauzak aldatzen diren alde horretatik, eta dena txukun man-



tentzen dugun. Errespetua da hitza, eta errespetua gauza askotan aspaldi galtzen hasi zen.

Bestalde, auzoko Aialde Berri sagardotegia ere bere martxan doa, eta bueltaxka bat eman beharko dugu laister, ez bainaiz oraindik estreinatu. Halere, jendearen mugimendua nabarmena da, eta asko oinez etortzen dira, ez dakit tren edo autobus geltokitik. Ez da ideia txarra ezta? Beno, beste bat arte!

KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Inauterietan blai!



Ez da ezer falta jada inauterien zurrumbilo eta iskanbilan sartzeko. Inguruko herri eta hiri guztiak kolorez blai jantziko dira hemendik gutxira. Hasi da atzera kontua, batzuentzat nahikoa da armarioko edozein trapu eta besteentzat denbora luzean prestatzen ibili ondoren sekulako itxura emango dionaren emaitza. Berdin dio nola eta zerrekin irten kalera, kontua festan murgiltzea da eta hori primeran betetzen dugu gehienok...

Oraingoan herria itsasoan bihurtuko gara edo itsasoarekin zerikusia duen zerbaitekin behintzat bai, gai zabala da eta aukera asko ematen dituena. Beraz ez dago aitzakiarik. Jai giro aparta izango dugu, urtero legez herrian. Horregatik hemendik denoi, festa giroan parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi dizuet. Ez ahaztu, hitzordua jarria dago, martxoko lehen larunbatean, hilaren 5ean. Eguerdi partean, Zumartxan txaranga eta arratsaldean, orduan ere txaranga giroan, kalejira, afaria eta festa giroa Kaxkoan, goizaldeko ordu txikiak arte.

Ondo ondo pasa eta ia pote bat hartzeko aukera dugun... Gora Inauteriak!!!

ZUBIETA

XABIER ARANBURU

Joko Garbiko finalak

Joan den otsailaren 19an, larunbatean izan ziren Joko Garbi Txapelketari lotutako finalak. Oiartzunen jokatu ziren azken neurketak, baina zoritxarrez Anderrek eta biok ezin izan genuen parte hartu. Joko Garbiko txapelketa baten amaiera zen, Gipuzkoako txapelketaren amaiera. Hiru kategoriatan jokatu dira partidak: infantilak, jubenilak eta nagusiak.



Hiru herritako parte-hartzaileak izan dira txapelketa honetan: Billabona, Oiartzun eta Zubieta. Guk jubeniletan jolastu behar izan dugu ez baitzegoen gure adineko aurkaririk. Txapelketaren hasieran bazirudien ia ezinezkoa izango zitzaigula partidarik irabaztea. Baina azkenean bi partida irabazi eta hiru galdu ditugu.

Bestalde, infantiletan bi talde finalista zubietarrak izan dira. Jubenil eta nagusien mailan, aldiz, Oiartzungoak eta Billabonakoak.

Finalaren ondoren merienda egin genuen Madalensoro frontoian gustura asko. Ez dugu ezer irabazi, eta galdu ere: ondo pasa dugu eta hurrengo urtean berriro jolasteko asmotan gara.

Legegintzaldiko azken aurrekontuak, hasieraz onartu ditu udalbatzak

Udalak eta Kirol Patronatuak prest dituzte aurtengo aurrekontuak. Joan den asteko ezohiko bilkuran gehiengo osoz hasieraz onartu ziren. Udal taldeek diru partiden inguruko lehen balorazioak egiteko tartea hartu zuten.

2011rako Udal eta Kirol Patronatuko aurrekontuak hasieraz onartu zituen udalbatzak, otsailaren 15ean burutu zen ezohiko osoko bilkuran. 2007-11 lege-gintzaldiko azkenak hain zuzen. Udaleko eta Kirol Patronatuko aurrekontuak bateratuta, guztira 14.195.191 euro izango ditu Udalak. Besteak beste: 3.401.091 euro inbertsioetarako, 5.412.117 euro ondasun arrunten erosketarako edota beste 3.689.630 euro pertsonal gastuetarako. Hasierako onarpena jasota, hamabost egunez jendaurrean jarriko da.

AURREKONTUEN MARTXA

“15 egunez jendaurrean egongo dira aurrekontuak, erreklamaziorik ez bada, behin betiko onartuko dira”

Udalak burutu asmo dituen inbertsio nagusiekin ados agertu zen Aralar. Oiaro Kiroldegiaren handitze lanak, Potxoenea, Santueneako frontoi berria eta urbanizazio lanak edota Kaxkoa berritzea aipatu zituen adibide moduan taldeko bozeramaile Joxe Ramon Furundarenak. Bide-gorri eta oinezko bideen sarea Batzordera noiz ailegatuko zen galdetzen zuen. Gaineratzen zuenez, “Donostiako Udalarekin zor handia dago. Arazo hori behingoz konpondu behar da”.

Iñaki Illarramendi (EAJ-PNV) aurrekontuon aurka agertu zen. Inbertsio nagusien alde egon arren, beste partida batzuekiko ados ez zegoela adierazi zuen. Lur erosketak aipatzen zituen adibide moduan. Lau ekarpen ere egin zituztela zioen jeltzaleen bozeramaileak, eta gogorarazten zuenez, “Eskola Publikoaren



14 MILIOI EURO PASATXOKO AURREKONTUAK HASIERAZ ONARTU DITU UDALBATZAK. 15 EGUNEZ JENDAURREAN EGONGO DIRA.

aldeko apustua ez da egiten, ez da doako hezkuntza bermatzen”.

Amaya Goyaranen (PSE-EE) esanetan, onartzera zihozten udal aurrekontuek, “neure printzipioen aurka talka egiten dute. Behar asko dago eta diru gutxi. Baina lehenatsunak aldatuta ere, denak dira beharrezkoak”. Tartean, berdintasun alorrera bideratuko den diru-partida aipatu zuen. Genero indarkeriari lotutako prebentzio eta hezkuntza lanaren beharra azpimarratu zuen, bere esanetan, estatu espainiarrean, “50 egun daramatzagu, eta hamar emakume hilda”.

Adierazpenok amaitu aurretik, alkateak hitza hartu zuen. EAJ-k eginiko ekarpenak orokorki jasoak zeudela baieztatzearekin batera, aurrera begira, garatu beharreko bi egitasmo azpimarratu zituen; Aralarretik aipatu zuten bide-gorri sarea eta Kiroldegia azpiegitura gehiagoz hornitzea.

Udal plantilla ere, onartua

Udal aurrekontuekin batera bozkatu ohi dute udal ordezkariak udal plantilla organikoa. 2011koa gehiengo osoz onartu zuen udalbatzak. Honela geratu zen bozketa: gobernu taldea eta EAJ-PNV alde, PSE-EE eta Aralar abstentuta eta Alkarbide aurka. Proposamena 15 egunez jendaurrean egongo da. Tarte horretan inork erreklamaziorik aurkeztuko ez balu, behin betiko onartuko da.

Garbitaniaren kapital handitzea onartu da

Usurbilgo Udala partaide duen Garbitania Zero Zabor S.M. sozietateari 18.000 euroko ekarpena egitea onartu zuen udalbatzak, azken ezohiko osoko bilkuran.

Osoko bilkurako bozketa honela geratu zen: Ezker abertzalea eta Aralar alde; EAJ-PNV eta PSE-EE abstentuta; eta Alkarbide aurka. Usurbil, Hernani eta Oiartzungo udalak partaide dituen Garbitania Zero Zabor SM-ren Batzar Nagusiak kapitala 100.000 eurotan handitzea erabakia duenez, Udala sozietateko kide izanik, dagozkion 18.000 euroko ekarpena egingo du. Kapital handitze horretan egin beharreko ekarpena, sozietate barruan udal bakoitzak duen bal-tzu partaidetzak zehazten du. Hernaniko Udalak %49ko partaidetza du Garbitania Zero Zabor sozietatean, Oiartzungoak %33koa eta Usurbilgoak %18koa. Eratu zenean, sozietateak 500.000 euroko kapital soziala zuen.

BOEko 58 etxebizitzetan izena ematea zabalik

Agerreazpi eta Sekaña eremuetako babes ofizialeko 58 etxebizitzetan interesa duten herritarrek izena emateko aukera dute. Udalbatzak otsailaren 15eko ezohiko osoko bilkuran zozketarako oinarriak onartu ostean zabaldu da martxoaren 14ra arte luzatuko den epea.

Otsailaren 15ean, ezohiko osoko bilkuran, Sekaña 22 eta Agerreazpiko beste 36 babes ofizialeko etxebizitzetan zozketarako oinarriak behin betiko onartu zituzten udal ordezkariak. Aralar, EAJ-PNV, PSE-EE eta gobernu taldeak proposamenarekin bat egin eta AlkARBIDE udal taldeko ordezkariak abstentziora jo zuten.

“Eskaintzen dena erreal da”

Oinarriak behin betirako onartu aurretik, adierazpenen txanda zabaldu zen. Aralarretik Joxe Ramon Furundarenak aipatzen zuenez, etxebizitzaren zozketa “hauteskunde kanpainarekin lotua dator”. Alokairu sozialaren for-

mula bultzatzea hobesten zuen. Bestalde, etxebizitzok esleitutakoan jabetza epe mugagaberako izango ote den jakin nahi zuen.

Galderari erantzunez, baietz zioen alkate Xabier Mikel Errekondok. Gaineratzen zuenez, “ulertzen dugu irakurketa hori, hauteskunde kanpainarekin lotzea. Baina esleipena bideratzera erabaki dugu, aukera hori orain etorri zaigulako”. Sekaña eremua adibide gisa hartuta, alokairu sozialaren apustua egin nahi zutela zioen Errekondok, baina hiru urteren ostean, “aukerarik ez digute ematen”. Eta gaineratzen zuenez, Udalak ezin du finantziarioa bere gain hartu.

Iñaki Illarramendik ere (EAJ-PNV) bat egin zuen proposamenarekin. Egungo egoera aintzakotzat hartzen zuen. “Etxe falta dago, gai nagusia da”, zioen. Kritiko agertu zen ordea, bere esanetan, “prozedura eraman den moduarekin” eta duela lau urte gertaturikoa gogora ekarriz gaineratzen zuenez, “proiektua nahiko airean dagoela ikus-



SEKAÑA, LASTER, ETXE BERRIAK
EGITEN HASIKO DIRA.

ten dugu”.

Alkateak hartu zuen hitza berriz. “Argitu, ez dakigula hauteskundeetan egongo garen”. Epeen berri zegokien unean eman dutela eta aipatu etxebizitza promozioetan zioenez, “eskaintzen dena erreal da, proposamen zehatzak. Etxebizitza proiektuak Etxebizitza Sailean daude, epe laburrean kalifikazioa izango dute. Epe laburrean exekuzio lanak hasiko dira”.

Oharra: pasa den astean NOAUA!n genion “Ugartondoko jabeak bere artean ez dira ados jartzen”, desadostasunak Olarriondokoaren artean eman direnean.

Jnar
ESTETIKA

MARTXOAK 10 **-%20**
-MIKROPIGMENTAZIOAREN ERAKUSTALDIA
(ATE IREKIAK)
Bisagismo froga DOAN
aurretikan eska ezazu hitzordua

munalurra 2, Usurbil 943 571 680

Tapa eta aurkibideak
prest

Agur esan diegu 2010 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2010eko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideak. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.



Baietz gure enpresan, Bikain Ziurtagiria lortu!

Buruntzaldeko enpresetan euskararen erabilera sustatzeko, "Baietz gurean!" egitasmoa jarri dute abian Buruntzaldea osatzen duten 6 udalerriek. Helburu nagusia da ahalik eta enpresa gehienek jartzea bitartekoak euskararen erabilera normalizatzeko eta pauso horiek eman ditzaten diru laguntza emango zaie egitasmo honekin, Bikain Ziurtagiria erreferentzia izanda.

Entrada, oficina, recepción... kontzeptuen ondoan, sarrera, bulegoa, harrera... jartzea edota telefonoa hartzean ¿Sí, dígame? esan beharrean, Bai, zein da? esatea edota web guneko edukia euskaraz ere jartzea edo dokumentuak euskaraz idaztea, bilerak euskaraz egitea... Batzuk pauso txikiak eta beste batzuk handiak, baina guztiak dira euskararen erabilera normalizatzeko pausoak eta pauso horiek ematera bultzatu nahi dituzte Buruntzaldeko 6 udalerriek bertako enpresak. Hori horrela, "Baietz gurean!" egitasmo berria jarri dute abian, Ahize hizkuntza aholkularitzaren proposamen batean oinarrituta. Enpresek, euskararen alde ematen dituzten pausoen arabera, diru laguntza jasoko dute egitasmo honen bidez, abiatzen diren tokitik abiatuta ere.

Buruntzaldeko herrietako 10 langiletik gorako enpresei zuzendutako egitasmoa da.

Bikain Ziurtagiria lortzeko bidea

Egitasmoa bultzatu duten Udalek jakinarazi dutenez, egitasmoarekin helburu instrumental batez baliatzea erabaki dute oraingoan: «Eusko Jaurlaritzak, hau da, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) ematen duen Bikain Ziurtagirietako bat lortzeko bidean jarriko ditugu enpresak, eta ibilbide horretan diruz lagunduko ditugu».

"Baietz gurean!" egitasmoan parte hartzea erabakitzen duten enpresei



ARGAZKIAN, EGITASMOAREN AURKEZPEN EKITALDIA URNIETAKO UDALEAN.

azterketa bat egingo die enpresa aholkulariak enpresa horren egoera linguistikoa zein den jakiteko. Horretarako, HPSk Lanhitz programaren barruan definituta duen Erreferentzia Marko Estandarra (EME) erabiliko du. 0-1000 puntuko tartean neurtuko da egoera. Enpresa aholkulariak txostena egingo du zehaztuz neurketaren emaitza eta enpresa horrek hurbilen duen Bikain Ziurtagirirako bidean egin beharrekoak. Bide horretan, 100 puntuko salto bakoitzeko jasoko dute diru saria Udalaren eskutik. Hasierako puntuak gehiago sarituko dira: 0-500 tartean 700 euro salto bakoitzeko, 501-800 artean 500 euro, eta 801-1000 artean 300 euro.

Enpresak parte hartzea erabakitzen duenean, urte beteko hitzarmena sinatuko du Udalarekin, luzatzeko aukerarekin, eta hitzarmen horretan jasoko da, besteak beste, Udalak enpresari emango dion dirulaguntza.

Bikain Ziurtagiriari dagokionean, hiru dira: Beltza, 200-399 puntu artean lortzen da eta 1.000 euroko saria du; Zilarrezkoa 400-699 puntu artean lortzen da eta 3.000 euroko saria du; eta Urrezkoa 700-1000 puntu artean lortzen da eta 5.000 euroko saria du.

12 enpresekkin harremanetan

Buruntzaldeko Udalek egitasmoa martxan jartzeko, 12 enpresa aukeratu dituzte, herri bakoitzeko bi, eta horie-

kin harremanetan daude. Aukeratu aurretik honako lana egin zuten: Buruntzaldean dauden 10 langiletik gorako 390 enpresei inkesta pasa zieten euskararen inguruko beharrak eta nahiak ezagutzeko. Horietatik 170ek erantzun zuten eta 52 enpresak azaldu zuten euskara normalizatzeko prestutasuna. Zenbait irizpide kontuan hartuta, hasteko, 12 dira jo puntuan dituzten enpresak.

Heziketa zikloan ere, euskalduntze bidean

Lan munduan euskararen erabilera normalizatzeko abiatutako "Baietz gurean!" egitasmoz gain, Heziketa Zikloan D erduan ikasten dutenek enpresetan praktikak euskaraz egiteko aukera izatea ziurtatu nahi dute Buruntzaldeko sei udalek. Hori horrela, bi zentzutan ari dira lanean: batetik, ikasleak motibatuzko hitzaldiak ematen ari dira Buruntzaldeko ikastetxeetan euskarak lan munduan duen garrantzia eta lekua azaltzeko. Bestetik, praktikak egingo dituzten enpresa horiekin lanean ari dira instrukto-rea euskalduna izan dadin, ikasleak laneko harremanak euskaraz izan ditzan, dokumentuak bi hizkuntzatan egon daitezzen...

«Kalitatea gero eta gehiago hartzen da kontuan, eta euskara kalitatearen barruan dago»

Astigarragako Tximela enpresa duela 25 urte sortu zen eta 6 urte dira Euskara Plana «ofizialki» martxan jartzea erabaki zutela. Ordura arte ere euskararen aldeko jarrera bazela azaldu dute Fernando Martinez eta Amaia Odriozolak baina orduan hasi ziren aurrerapauso nabarmenak ematen; 2008an Bikain Beltza Ziurtagiria lortu zuten eta orain Zilarrezkoaren bila hastekotan dira. Euskararen aldeko pausoak ematera animatzen dituzte gainerako enpresak.

Zergatik erabaki zenuten plana martxan jartzea? Nolakoa izan da prozesua?

Bospasei urte daramatzagu plan ofiziala aurrera eramaten. Egia esan, beti izan dugu nahiko giro euskalduna langile eta berezoen artean. Baina, orain dela sei bat urte erabaki genuen, Udaletxetik eta beste zenbait erakundetatik bisitan etorri zirenean, euskara plana ofizial bihurtzea eta euskarari garrantzi handiagoa ematea. Emun Kooperatibakoekin martxan jarri eta neurketa bat egin ostean horren araberrako helburu batzuk zehaztu genituen.

Lehenengo pausoak zeintzuk izan ziren?

Errotulazioak aldatu, ohar taulan azaltzen diren dokumentuak euskaratu edota ahozko erabilera ere asko bultzatu zen. Dena dela, ordura arte ere asko erabiltzen zen, Administrazioan batez ere. Tailerrekoa beste kontu bat da. Bertan badago jendea euskara menperatzen ez duena eta zaila da horri konponbidea aurkitzea. Hala ere, badira bertako langile batzuk hemen antolatzen ditugun euskara eskoletara joaten direnak eta hori ere pauso bat da.

Langileek nola hartu zuten? Eta bezeroek?

Langileen artean harrera ona izan zuten, baina erabiltzea beste kontu bat



TXIMELA ENPRESAKO KIDE FERNANDO MARTINEZ ETA AMAIA ODRIOZOLA.

da. Gehienak alde egon arren, eguneroko lanean pixka bat kosta egiten da. Hala ere, aurrera goaz. Zerikusi handia du sektorean erabiltzen den hizkuntza teknikoak ere, hiztegi horrek askotan erdarara jotzea bultzatzen baitu. Halere, oro har bezeroen aldetik ere iritzi positiboak jaso ditugu.

Euskara Plana martxan izanik, zein helburu dituzue epe motz eta luzean?

Oraingo helburuak ez dira hain kuantifikagarriak. Hasierakoak bai, lehenengo pauso horietan aldaketa errazagoa zen ikusten. Baina helburu batzuk ezarriak dauzkagu, Bikain Zilarrezkoa lortzea, adibidez. 2008an Bikain Beltza atera genuen, oinarritzko maila, eta zilarrezkoa lortzeko puntu batzutura gelditu ginen. Orain badakigu zer den eskatzen dena, beraz, hori lortzeko izan genituen hutsuneak betetzea da orain helburua. Ziurtagiria bultzada bat da, eta era berean obligazio bat ere bai, lan gehiago egiteko. Horrez gain, badugu beste helburu bat. Tximela, enpresa talde baten barruan dago; alde batetik, Tximela eta Astikar dauzkagu Gipuzkoa mailan dihardutenak, eta Ubaristi Estatu mailan. Euskara aldetik Tximelan aurreratu dugu gehien eta aurtengo helburuetako bat da beste enpresa horiek ebaluatu eta zer egin daitekeen aztertzea. Eta

horiez gain, baditugu betiko helburuak: bileretan ahal den neurrian euskaraz hitz egin, dokumentu berri eta deialdiak euskaraz prestatu, inprimakietan euskara kontuan hartu...

Bikain Ziurtagiria lortzea zaila dela esango zenukete?

Lan asko egin behar da eta denbora behar da dena lantzeko. Kontuan izan behar da eguneroko zereginekin lanpetuta gaudela eta kosta egiten dela astean bi ordu ateratzea. Denbora eskatzen du baina ez dugu uste bete beharreko baldintzak zorrotzeiak direnik. Gauzak behar bezala eginez gero, ziurtagiria lortzea ia segurua da. Zailagoa izango da Urrezkoa ateratzea.

Amaitzeko, zergatik animatuko zenituzkete beste enpresak plana martxan jartzera?

Alderdi positibo asko dituelako. Gure lan eremua Gipuzkoa izanda, irudi positiboa lortzen da euskararekin eta enpresarentzat garrantzitsua da hori. Merkatua hemen daukatenez ere bai. Gainera gauza gutxirekin eman daitezke pausoak. Gure iritiz, bezeroek prezioez gain, beste gauza batzuk ere baloratzen dituzte. Gainera kalitatea gero eta gehiago hartzen da kontuan eta euskarazko zerbitzua kalitatearen barruan dagoela uste dugu.

BasHerri taldeen II. Topaketak, otsailaren 25 eta 26an

Bertako baserriarren produktuak herritarrek zuzenean eskuratzea. Ekoizle eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzena bultzatzea, bitartekaririk gabea. Erronka horren inguruan lanean dihardute, BasHerri mugimenduko taldeek, tartean Usurbiltzen Elkarteak. Bilguneon II. Topaketak antolatu dituzte egunotarako Usurbilen.

NOAUA! Nola defini daitezke topaketok?

Pedro Alberdi. Esperientziak trukatzea eta elkar ezagutzea gehienbat. Talde berrientzat ere lagungarria izango da. Lehenengoak iaz egin ziren Zarautzen eta bospasei talde bildu ginen. Azken urtean ordea talde piloia sortu da.

Aitziber Urruzola. Une askotan argi dituzu gauzak eta badakizu nondik jo, baina batzuetan ez. Ideiak partekatu, edo funtzionatzeko erraztasun horiek bilatzeko, beti izaten da lagungarri eta aberasgarria beste taldeak ezagutzea.

N. BasHerri taldeen mugimendua nondik sortu da?

P. A. Mundu mailako herri mugimendutzat jo liteke. Elikagaiekin kezkatua dagoen jendea biltzen duena, batzuk osasunagatik eta besteek, elikadura subiranotasuna nahi dutelako, nahi ditugun jakiak izateko erabakitze eskubidea. Gipuzkoa mailan, duela sei bat urte sortu zen lehen taldea, Uztaro Kooperatiba. EHNE sindikatutik eta Biolur elkartetik bultzada handia eman zaio ekimenari azken urtean eta talde berriak sortzen ari dira orain.

N. Usurbiltzen Taldea antolakuntzaz arduratzen ari da. Bestelako zer ekimen dituzue egun, esku artean?

Leire Otxotorena. Otarren sistema martxan jarri ostetik, produktu asko jasotzen ari gara. Ikastaro eskaintza ere



II. TOPAKETETAKO ANTOLATZAILE USURBILTZEN ELKARTEA, HILEKO LEHEN ASTELEHENETAN BILDU OHI DA ARTZABALEN, 18:30ETAN.

zabala dugu. Ogigintzako bigarren ikastaroa egin berri dugu, hirugarrenarako ia taldea osatua dugu. Ekimena aurrera doa.

N. Oraindik herriko ekoizleen parte hartze falta sumatzen duzue?

L.O. Bai. Baina etorriko dira, jendea pixkanaka etorkizuna bide horretan dagoela konturatuko da.

V. Ekozinemaldia, egunotan Sutegin

Ordua: 19:00.

Otsailak 24, osteguna

-“The age of stupid” (“La edad de la estupidez”, 2009); “On” eta “El gran casino europeo”.

Otsailak 25, ostirala

-“El poder de la comunidad. Cómo Cuba sobrevivió al pico del petróleo” (Kuba); “Vientos de resistencia” (Mexiko); “Despierta=Asómbtrate”.

Antolatzaileak: Usurbiltzen Elkarte eta Ekologistak Martxan.

Egitaraua

Otsailak 25, Artzabalen:

10:00-11:00 BasHerri taldeak Gipuzkoan.

10:30-13:30 Prezio tailerra: metodologia eta diskurtsoa.

14:30-17:00 BasHerrien balorazioa eta esperientzia elkartrukatzea.

17:00-18:00 HaziBerri ekimenaren proposamena.

Otsailak 26, Udarregi ikastolan:

10:00-11:00 BasHerri Taldeak Gipuzkoan: azken urtebeteko ibilbidea.

11:00-12:00 BasHerri taldeen aurkezpenak.

12:00-12:30 Hurbileko beste erduen filosofia eta antolaketa: Ipar Euskal Herriko AMAP taldeak.

12:30-14:00 Esperientziak partekatu eta eztabaida.

14:00 Bazkaria eta bertso-musika-jam sesioa, Artzabal tabernan. Topaketetan izen ematea: ebel@ehneg.net edo 943 654 281 (Maidar). Informazio gehiago: basherri.wordpress.com.

Xoxak eskatzeko garaia da

Kultur zein kirol arloko dirulaguntzak eskatzeko epea ireki da

Kultur zein kirol arloko dirulaguntzak eskatzeko epea ireki da. Eskariak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira. Eta gogoan izan epea: martxoaren 2an amaituko da dirulaguntza eskatzeko garaia. Udaletxean ez ezik, usurbil.net web orrialdean daude oinarriak eta dirulaguntzak eskatzeko bete behar diren inprimakiak ere.

Kultur elkarteek, bestelako kultur erakundeek eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten kultur ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, dirulaguntza deialdia arautuko duten oinarriak atera dira, 2011. urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

ONARRIAK NON ESKURATU

“Udalaren web orrialdean jarri dira oinarriak eta baita bete beharreko inprimakiak ere”

Kultur arloari dagokionez, gehienez ehuneko hauetan lagunduko dira diruz, aurten antolatuko diren kultur arloko ekimenak: ikastaroak %60n, irteerak %10ean, kanpamendu edota udako ekintzak %60n, eta gainerako kultur ekintzak %95ean.

Irizpide berriak

Irizpideen artean berrikuntzak txertatu ditu Udalak. Oinarrietan berri ematen denez, “bereziki baloratuko dira gaitzat euskara eta hondakinen kudeaketa duten ekintzak”. Gaineratzen denez, ez dute dirulaguntzarik jasoko kidea auke-



KULTUR ETA KIROL ARLOKO DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO EPEA IREKI BERRI DA.

ratzeko prozesuan edo jardunean sexubereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeek.

Dirulaguntza eskaera egiteko, dokumentazio hau ekarri behar da Udalera:

- Dirulaguntza eskari normalizatua.
- Ekintzei buruzko fitxak.
- Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- Identifikazio Fiskalaren Kodearen kopia (edo NANaren kopia, hala bada-gokio).

-Gizarte Segurantzarekiko betebeharraren egunera egotearen eta Ogasuneko betebeharrak betetzearen agiria. (III. Eranskina).

-Elkarteak ez duela bazterketarik egiten adierazten duen agiria. (IV. Eranskina)

Erakundeak ez du zorrik izango Usurbilgo Udalarekin.

Martxoaren 2ra arte

Udalaren web orrialdean, www.usurbil.net, dirulaguntzen oinarri guztiak jarri dira. Hala nola, Kulturako dirulaguntzen eskaera egiteko inprimakiak ere. Martxoaren 2ra arte epea

zabalik (egun hori barne).

Nola egingo den ordainketa

Dirulaguntza eman dela jakinarazi bezain laster, dirulaguntzaren %75a ordainduko da, eta honetarako ez zaie inongo bermerik eskatuko onuradunei.

Gainerako %25a, eman deneko dirulaguntza justifikatu ondoren ordainduko da. Eta kontuan izango dira, halaber, Ordenantzaren 12. artikuluan aipatzen diren aspektu guztiak.

Kirol arloko dirulaguntzak

Kirol arloko dirulaguntzak emateko oinarriak ere www.usurbil.net webgunean aurkituko dituzue (edo Udaletxean bertan galdetu bestela).

Xehetasun gehiago aurkituko dituzue oinarrietan.

Dirulaguntza eman dela jakinarazi bezain laster, dirulaguntzaren %50 ordainduko da, eta honetarako ez zaie inongo bermerik eskatuko onuradunei. Gainerako %50, eman deneko dirulaguntza justifikatu ondoren ordainduko da.

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

663 08 76 71 • 943 24 34 65

ALIPROX

Kale Nagusia 10

943 361 182

USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8

943 370 008

izAgirre

ELEKTRIZITATEA

943 36 50 95-609 06 81 11

izagirreletrizitate@hotmail.com

Golz argi etxea 37, KALEZAR

Kultur arloko parte hartze prozesu irekia abiatuko du Udalak, martxoaren 2an

Geldialdia egin, eta aurrera begira jorratu beharreko bidea elkarlanean egitea. Asmo horrekin, kultur arloko parte hartze prozesu berria abiatuko da martxoaren 2an, gai hauetan aditua den Nicola Foroni gidari duela. Bilera irekia izango da, beraz gonbita zabalik dago denentzat.

Hiru urteko ibilbidea osatu berri duen Kultura Aholku Batzordea martxoaren 2an bilduko da berriz. Datorren bilkura ezohikoa izango da ordea. Ezohikoa eta bertaratu ohi diren kideez gain, herritarrentzat irekia izango den hitzordua. Udaleko Kultura Departamendutik berri eman dutenez, kultur arloko eragileei zuzenduta, "orain arte elkarrekin egin dugun bidea oso emankorra izan da. Aurrerantzean ere hala izatea da gure desioa. Horregatik iruditu zaigu, geldialditxo bat egin eta aurrez egindako lan guztia ahaztu gabe, garrantzitsua dela

Usurbilen kulturak hurrengo urteetan norantz joatea nahi dugun ikustea eta eztabaidatzea". Testuinguru horretan, kultur arloko parte hartze prozesua abiaraziko du Udalak astebete barru. Orain arteko ibilbidea, herriko kultur bizitza aztertu nahi da, egungo errealitatea ahotan hartzearekin batera. Baina bereziki, aurrera begirako kultur arloko ikuspegi estrategikoa jorratu nahi da, lan ildoak zehaztea. Parte hartze prozesuetan aditua den, eta atez ateko bilketari lotuta herritarrei zuzenduta antolatu ziren bilkuretan parte hartu zuen Nicola Foronik gidatuko du aipatu egitasmoa. Prozesu honen abiapuntua, astebete barrurako finkatu dute. **Martxoaren 2an**, arratsaldeko **18:30etatik aurrera** aurkezpen saioa burutuko da **Artzabalen**. Kultura Aholku Batzordeko kide diren herri eragileak bertaratzera gonbidatuak daude. Baina baita gainerako herritar edo gai honekiko interesa duen edonor ere.



NICOLA FORONIK GIDATUKO DU AIPATU PARTE HARTZE PROZESUA.

Ate joka ditugu inauteriak, astebete baino ez moztarok prestatzeko

Udarregi ikastolako ikasleek "Inautaroak" ikuskizuna eskainiko dute martxoaren 4an, Oiardo Kiroldegian. HHko 3,4 eta 5 urteko haurrek apaindutako zakuekin hasiko dute emanaldia, 11:15etan. LHko ikasleek herrialde eta garai desberdinak islatuko dituzte; Txina edota Arabiatik etorriko dira, lehen gizakiak, Erdi Arokoak... DBH-ko lehen hiru ikasturteetako ikasleak sorpresa ederra prestatzen ari dira. Ikastolatik Kiroldegia eskertu eta ekitaldirako duten ilusioa azpimarratu nahi dute.

Martxoaren 5ean bestalde, egun osoko inauteri festa ospatuko da herrian. **Itsasoa** da moztarotzeko aurtengorako proposatu den gaia. Datorren larunbatean, festa giroa kalean izango da. Hona hemen prest dagoen egitaraua:

12:00 Zumartxan txarangarekin kalejira.

18:00 Burrunbazale txarangarekin kalejira.

21:00 Afaria Saizar sagardotegian. Txartelak aldeztu aurretik salgai: Txiribogan, Irratin eta NOAUA!-n.

"Emakumeak protagonista" izeneko zikloa, hastear

Udaleko Berdintasun Saitetik "Emakumeak protagonista" zikloa antolatu du martxoa hasierarako. Lau ekitaldi burutuko dira guztira. Lehenengo biak datorren astean. Hilaren 3an, "Autoestima y buen trato: un taller para mujeres" hitzaldia eskainiko du Pepa Bojó psikologo valentziarrak, 15:00etatik aurrera Artzabalen. Martxoaren 17tik aurrera, ostegunero, 14:45-16:15 artean eskainiko duen tailerren sarrera izango da. Tailerren izena emateko udaletxera deitu behar da.

Martxoaren 4an bestalde, "80 egunen", gaztaroko bi emakume lagun minen topaketa ardatz duen film ezaguna proiektatuko da, 19:00etan Sutegin. Sarrerak, egunetan bertan 2 eurotan salgai.

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
© 943 69 68 52 · 620 800 186

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telef: 943 37 33 48
943 37 09 13

Ojindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Martxoan hasiko da, Akerra Gaztetxeak antolaturiko futbol txapelketa

Ostiral honetan, otsailak 25 itxiko da Akerra Gaztetxeak antolaturiko futbol txapelketan izena emateko epea eta martxoan erdialdera hasiko dira partidak. Berrikuntzekin dator gazteen kirol ekimena; jokalarien arteko parekidetasuna sustatuko dute aurtengo edizioan.

NOAUA! Iaz urte garai honetan antolatutakoari jarraipena ematera dator aurtengo edizioa?

Akerra Gaztetxea. Bai. Orain arte, DBH 4. mailako ikasleentzat bazegoen txapelketa bat, baina gero ez zuen jarraipenik gazte eta helduentzat. Ostiral gau eta larunbat goizetan giro polita sortu, herriari bizitasuna eman eta elkarren artean ondo pasa genezakeela ikusten genuen.

ATEAK ZABALIK

“Hileko bigarren ostiraletan
22:00etan euskaltegiko
egoitzan biltzen gara.
Ateak irekita ditugu”

N. Txapelketan parte hartzeko baldintzak zeintzuk dira?

A.G. Jokatzeko gogoia izatea. Gehienez 1993. urtetik aurrera jaiotako hamar jokalariz osaturiko taldeak izan beharko dute. Bostek jokatuko lukete, hoge minutuko bi zati izango dira. Izena emateko 70 euro ordaindu behar dira Kiroldegian, taldekide guztien NAN kopiak, taldearen izena eta kamisetaren kolorea aurkezteaz gain.

N. Lehiakortasuna alboratu eta parekidetasuna bultzatu nahi duzue?

A.G. Mutilen taldeak animatu ohi dira, baina neskenak ez. Jokalarien parekidetasuna bultzatzeko puntuazio sistema aldatu dugu. Talde mistoek neurketa irabaztean bi puntu izan ordez, hiru jasoko dituzte. Eta berdintzean, puntu bat izan ordez bi. Gainerako taldeek, irabaztean bi puntu eta berdintzean bat. Hiru taldekideetako batek neska izan beharko



TXAPELKETAKO PARTAIDEK KIROLDEGIAN IZENA EMAN BEHAR DUTE.

du, talde mistotzat jotzeko. Bestalde, iaz arbitroen inguruan sortu ziren arazorik ez dugu egoterik nahi.

N. Iazko esperientzia gogoan izanik, zergatik eman beharko lukete gazteek izena txapelketa honetan?

A.G. Herriari beste bizitasun bat emateko ostiral gauetan. Iaz frontoia bete eta taldeen artean giro polita sortzen zen. Baita gazteen artean ere beste harreman bat sortzeko. Gogoz etor daitezela, txapelketa polita izango da. Ahalik eta futbol txapelketa txukunena egiten saiatuko gara.

N. Urte amaieran, 2011ko ekimenei buruz hitz egiteko bildu zineten. Beste ekitaldirik antolatzekotan zarete?

A.G. Hilero Akerra Gaztetxean kontzertu bat antolatzea pentsatu genuen. Bideo emanaldi batzuk ere eskaini dira Sutegin errausketaren ondorioekin. Jendea azaltzen hasi da. Bestalde, Gazte Ekimena eta Akerra Gaztetxea jende aldetik justu samar genbiltzanez, bi taldeak bat egitea erabaki zen. Herrian talde finkorik ez zegoela ikusita, gazteok herrian zerbait egiten hastea erabaki genuen. Hori da gure helburua, gazteak biltzea eta gazteentzako ekitaldiak antolatu eta denok ondo pasatzea.

N. Akerrara hurbildu nahi duenak...

A.G. Ideiak baditu proposatzeko edo gogoz badago, hileko bigarren ostiraletan, 22:00etan euskaltegiko egoitzan biltzen gara. Ateak irekiak ditugu.

65 traineru,

Oria ibaiaren jaitsieran

Joan den otsailaren 19an ospatu zen Oriako XVII. Jaitsiera. 65 traineru guztira, Euskal Herrikoak gehienak, baina baita Herrialde Katalanetatik edota Fuerteventuratik ere etorritakoak. Hauek dira mailaka jokatutako bi distantzia desberdinetako probetako garaileak:

4 km (Sarikola-Orio)

-Llagutak: CN Premia, 23:05,24.

-Jubenilak+mistoak: Zumaia, 13:36,30.

-Beteranoak: Arkote, 15:18,84.

-Emakumezkoak: Getaria-Tolosa, 14:46,49.

6 km (Mapil-Aginaga)

-Maila absolutua: Bermeo A, 20:14,18.

Usurbildarrak, igandeko pilota finalean

Xabier Santxo eta Julen Urruzola Euskal Herriko elkarte arteko pilota txapelketa finaleko saillatu dira. Igandean, jokatuko dute neurketa Zornotzan, Azpeitiako Ilunpe Elkartekoan aurka. 22 urtez azpiko mailako partida, 11:30etan hasiko da.

Agenda !!

Otsailak 23/ 25

- Ekozinemaldia. 19:00etan Sutegin.

Otsailak 25 ostirala

- 18:30ean, Oria itsasadarreko proiektuaren aurkezpena Artzabalen.
- 20:00etan, euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea.

Otsailak 26 larunbata

- Kantu-jira. 19:00etan Mikel Laboa plazan.

Otsailak 27 igandea

- Flash mob entsegua. 12:30ean frontoian.

Goardiako farmaziak

Otsailak 24, osteguna
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 25, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 26, larunbata
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Otsailak 27, igandea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Otsailak 28, astelehena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Martxoak 1, asteartea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Martxoak 2, asteazkena
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Martxoak 3, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Martxoak 4, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Martxoak 5, larunbata
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Martxoak 6, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

* Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpurua, Latxumbe Berri, 11, Hernani
Telefono zenbakia: 943 336 077.

“Hau Komeria” Aginagan, TEATReruak hirukotearen eskutik

Lan honekin umoretik misteriora Ligaroko dira. Aurreko emanaldiko sofatik, etxebizitza bateko gela batera. TEATReruak Antzerki taldekoak Aginagako ludotekan argituko dituzte ostiralean, misterioak, “Hau komeria!” antzezlanarekin.

Donostiako Gazteen Antzerki Topaketan talde artistikorik onenaren saria jaso zuen TEATReruak taldeak, “Hau Komeria!” antzezlanari esker. Jon Etxabe, Leire Iturrioz eta Ander Izeta bueltan dira berriz. Ostiral honetan, otsailak 25, Aginagako ludotekan eskainiko dute aipatu antzezlan, ilun-



IRUDIAN, ANDER IZETA,
JON ETXABE ETA LEIRE ITURRIOZ.

tzeko 20:00etan hasita. 12 urtetik gorakoei zuzendutako antzezlan izango da. Sarrera doan.

Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea

Hilabete amaierako ostirala izanik, presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea burutuko da ostiral honetan, otsailak 25. Usurbil Nahi Ditugu elkarteak deituta, iluntzeko 20:00etan izango da, Mikel Laboa plazan.

Torturaren aurkako ekitaldia, igandean

Torturatuak izan diren zenbait herriarren esperientziak jasotzeko ekitaldia antolatu dute igandearako Akerra Gaztetxeok. Poesia eta bideoez lagunduriko saioa, Sutegin, arratsaldeko 18:00etan hasita.

Oria ibaiaren inguruko egitasmoaren aurkezpena

Kontserbazio Bereziko Eremu Kizendatzeko hartu beharreko neurriak zehazten ari da Jaurlaritza. Tartean, Oria itsasadarrarena. Horri buruz hitz egiteko bilera deitu du Udalak, ostiral honetarako. 18:30etan Artzabalen.

Igandean,

Flash Mob entsegua

Zubietako Flash Mob erraldoia Zgrabatzeko hilabete baino gutxiago falta den honetan, prestaketa lanek aurrera jarraitzen dute. Hurrengo entsegu saioa, igande eguerdiko 12:30etan frontoian.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

ETXEBIZITZA

- Kaxkoan pisua alokatzen da. 2 gela, sukaldia, sala eta komona. Tlf: 670070562
- Santuenean etxe bat alokatzen da. 679 366 415.
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan, 2 gela, sala, sukaldia, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tlf: 686969112
- Kaxkoan etxebizitza salgai. Hiru logeladuna, bi komun eta trasteroarekin. 685 731 792.
- 90 metro karratuko pisu bat daukagu salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldia, bi komun eta 7 metro karratuko ganbara bat. Oso eguzkitsua eta bizitzaren jarzke moduan dago. 699680265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu).
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldia, komuna. 130.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldia-sala. 661 679 691.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroledegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat salgai Alfaron (Errioxa). Astebukaerak eta oporraldiarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herriatik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela txime-nearekin, sukaldia, komuna, portxea. 675702428 (gauz).
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- 95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldatetako egiteko aukera asko. 141.000 euro. 943 36 98 35 (21:00etatik aurrera).
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursaila. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldia, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean.

671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garajea salgai Goiko kale 2an, Atxegalden. 676453176
- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150 sagarrondorekin. Deitu: 943 361 463
- Nissan Almera salgai. Matrikula: SS-BG. Prezioa: 1.500, IAT (ITV) pasea du. 615 798 479.
- 5 plazako Roller karabana bat daukagu salgai abantzea eta gainerako akzesorioekin. 3500 euro. 676453176.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- 33m karratuko lokal bat alokatzen dut Atxegalden 280 eurotan. Sarrera egokia. 943373414
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Emakume bat behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. Interesatuta bazaude 615756893.
- Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabilta. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabilta. Nahiago dugu Usurbilgoa eta euskalduna izatea. Interesatuak deitu 676355635 telefonora.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrik emateko prest egongo al zinateke? Hala bada, pasa zaitz Udarregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

Lan-eskaintzak

- Herriko emakume euskaldun bat eskaintzen da pertsona helduak eta gaixoak zaintzeko. Orduetegi malgua (egunez zein gauz) eta prezio ekonomikoak. 687348223.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziak eskaintzen da gauean adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 626344882.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrik ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltsaritza lanetan aritzeko, 677593772.

- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gazteorako orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- 23 urteko mutila, Usurbilen lan bila dabil barrako zerbitzari edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko urte osorako. Lanean berehala hasteko: 622 065 461 (Alex).
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketara lanak egingo nituzke. 656446835.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendingi edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularrik emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- 11 husky siberiar txuri oparitzeko. 649906678.
- Urtarrilaren 16an Andatza mendian (Puelako bidean) mendiko txamarra mutilarena, urdin iluna, galdu dut. 657702038.
- Umea eramateko "mendiko motxila" erosiko nuke. 647973854.
- Hemengo intxaurrek salgai, prezio onean. Telf: 943 67 11 60. Edurne.
- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 Jesus Mari.
- Wii kontrolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopia kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Garantia ez da galzten, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein ekitaldiaren abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

Oharrak, zorion agurrak, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 12:00etan.

erredakzioa@noaua.com

** Jaiotzen datuak Usurbilgo Bake Epaitegian bakarrik hartzen ditugu.*



Zorionak Nicole! 5
urte bete dituzu otsailaren 20an. Zorionak, Justinen, lagunena eta etxeko partetik.



Zorionak Onintza!
Otsailaren 21ean egin dituzu 9 urte. Etxeko guztien partez besarkada bat eta muxu handi bat. Zorionak zuri...



Zorionak Janitz!
25ean, 4 urte! Muxu potoloak etxeko partez.



HILDAKOAK

Isabel Gonzalez Castaño
Otsailaren 16an hil zen 56 urterekin

Jose Iparraguirre Amiano
Otsailaren 15an hil zen 83 urterekin

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com



Javier Orbegozo
·ITURGINTZA
·GASA ·BEROKUNTZA
659 602 789

Erreka-txiki 13, 3.esk USURBIL 943 37 29 37

OSASUN GIDA 2011



**USURBIL
OPTIKA**

Entzumeneko aparatuak • Igerilekuko tapoiak, neurriko egindak
BEHERAPELAK, aguzkitako betaurrekotan

Zubiaurrenea, 10. • ☎ 943 370 269 • 675 708 654

**50€-ko
BALEA**

BETAURREKO
PROGRESIBOETAN
(HOYA)





FISIOTERAPIA ZENTROA
Ibaiondo

Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak



Ola Kalea, 12 - behea, ezk. LASARTE - ORIA Tel / Faxa: 943 370 306



Kima
MASAJE LEKUA

-Kirol masajea
-Masaje terapeutikoa
-Kolonaren hidroterapia
(idortasuna eta haize arazoak hobetzeko)



☎ 943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA



**iturralde
botika**

Tomas Iturralde botika
R.P.S. Nº 88/07

Borda berri 1, 20170 USURBIL

- ✓ Maisu formulak
- ✓ Dermofarmazia
- ✓ Produktu Homeopatikokoak

☎ 943 36 33 95

Huginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

TXOTX!!



Tel.: 943 365 031

Mugikorra: 670 027 731

Santuenea

LARRE-GAIN

DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta igande
eguerdian **IREKITA**
Astelehenetan **ITXITA**

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hemani**
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867

SAIZAR

Betiko Sagardoa

Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 362 228
www.sidrassaizar.com

ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.

Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81

ERRETEGIA • NEKAZALTURISMOA

ARRATZAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Egunero irekia.

Arratzainzar Baserria
info@agroturismoarratzain.com
Telf: 943 36 66 63
20170 USURBIL

☎ 943 36 12 29

iruvin

sagardotegia

Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com

AGINAGA

Sagardotegia

Urte osoan txotxetik

Estreka kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxe: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginasagardotegia.com